

MARTIN ZABALETA: “Egin dugu! Gora Euskadi askatuta! Gora Euskadi antinuklearra!”

Martin Zabaleta hernaniarrak,
Pasang Temba sherparekin,
Everesteko edo Chomolungma
gailurra (8.848 m) zapaldu
zuela, 40 urte bete dira: 1980ko
maiatzaren 14an izan zen.

Martin Zabaleta izan zen munduko tontor altuena zapaldu zuen aurreneko euskalduna, baina saia-kerak izan ziren aurretik, *Tximist* Espediziokoaren kasu, 1974an. Orduan espedizioko kideek, eguraldi txarra izan zutela, eta ezin izan zuten lortu.

Handik sei urtera beste espedizio bat antolatu zen, hamabi (12) lagunek osatuta: Juan Ramon Arrue, Xabier Erro, Ricardo Gallardo, Javier Garaioa, Emilio Hernando, Juan Ignacio Lorente, Kike de Pablo, Angel Rosen, Luis Maria Saenz de Olazagoitia “Petxu”, Joxe Urbietta “Takolo”, Felipe Uriarte eta Martin Zabaleta.

Espedizioa 1980ko otsailean Nepalera abiatu zen; martxoan, Namche Bazarren zegoen, serphen herrian. Martxoaren 18rako beheko kanpamentua antolatu zuten 5.400 metrora. Aklimatizazioa eginda, gailurrerako bi-deari, tandaka, ekin zioten maiatzaren 7an; aurrenekoan Javier Garaioa tontorretik 90 metrora geratu zen.





1980ko Euskal Espedizioko kideak beheko kanpamentuan.



Maiatzaren 14an, 02:30ak aldera hegoaldeko lepotik abiatu ziren Juan Ignacio Lorente, Martin Zabaleta, eta hiru serpha. Martin Zabaleta eta Pasang Temba 10:15ak inguruan 8.760 metrora ailegatu ziren. Eta, azkenean, gailurrera 15:30etan.

Gailurrera iristen aurrena Pasang Temba izan zen, eta bera izan zen ikurriña, Nepaleko bandera eta bandera antinuklearra jarri zituena. Martinek hain ezaguna egin zaigun argazkia egin zuen. Bertan, 45 minutu egon ziren.

Igoera erraza ez bazen izan, zer esan jaitsiera. Pasang Temba 10 metroko paretan erori zen 8.700 altuera metrora. Zabaletak lagundu, eta heriotzatik salbatu zuen. Azkenean, biak sanu, maiatzaren 15ean III. kanpamentura ailegatu ziren haien bila joandako hiru serphekin...

Handik hilabetera ailegatu zen espedizioa Euskal Herrira, ekainaren 12an. Gaueko 21:00etan Martin Zabaleta Hernanin zegoen; *“Hernanikoa ez dut behin ere ahaztuko”*.

Zinkoeneatik, Kale Nagusitik gora Incansables txarangak eta jendetzak lagunduta plazaraino oinez igo zen. Txistulariek jota *Agurra* dantzatu zioten Ekintza eta Urtza dantza taldeko kideek; eta Musika Bandak *Eusko gudariak* jo zuen.



Eta udaletxean harrera egin zitzaion; bertan korporazioa zegoen, familia eta lagun asko. Eta Hernaniko Urrezko ikurra jarri zitzaion: *“... borrokalaria bezala, herri honen eskubideen errebindikazioan egindako lanagatik”*



Juanjo Uria alkateak, herriak bizitu zuena
hurrengo bertsotan islatu zuen:*

Zortzi milako mendi erraldoi
hauetan xamurrik ezta,
eta abian jarri ezkerro
ze ardura ta ze kezka,
baina taldea gogotsu joan zen
itxaropenez gainezka,
herria berriz, albisteen zain
urduri eta galdezka,
ea Martinek jada zapaldu
ote zuen Everesta.

(Doinua: Aita izena kanta beharrak)

Gorantza hustu egin zen
baina egin zuten gaina
behera bidea ordea
arriskutsu ta labaina,
gero sherpa erori zen
arazo larria baina,
hura bakarrik utzita
ez zen joango kapitaina,
nahiz une batez igarri
heriotzari usaina,
ze gizatasun itzela,
ze portaera bikaina,
larrialdian itzuli
zion sherpari ordaina,
esasnez: "hau ere bada,
beste gizakiok aina".

(Doinua: Baserrian jaio nintzen, Habanera)



* URUMEAKO KRONIKA. 2020/05/14